

## **BALIO PROPOSAMENA**

Guk sortu dugun aplikazioa “culturízate” deitzen da eta enpresaren izena, berriz, collide da. Guk sortutako aplikazioan edozer gauzari argazki bat ateratzearekin zer den esango dizu. Adibidez, zuhaitz bati argazki bat ateratzerakoan zer motatakoa den azaltzen zaizu eta horri buruzko informazio guztia ateratzen da.

Gure balioetako bat nobedadea da; ez da aplikazio arrunt bat, baizik eta oso aplikazio berezia. Alde batetik, informazioa bilatu dezakezu, hau da, argazki bat ateratzerakoan zer den azaltzen dizu eta ondoren gorde egiten da edozein momentuan begiratu ahal izateko. Bestetik, gordetako informazio guztiarekin joku bat osatzen da. Jokua galdetegi baten antzerakoa izango da zuk bilatutako informazioarekin. Galdera bat egongo da hiru erantzunekin eta horietako bat zuzena izango da.

Lana erraztea da gure beste balioetako bat. Esaterako, egun osoan ikusi duzuna zein edo zer den pentsatzen egon beharrean aplikazioa ireki eta argazki sinple batekin informazioa aurkituko duzu.

Gure azken balioa erakargarritasuna da. Edozein pertsonak erabili dezakelako gure aplikazioa.